

Sahara laguntzeko festa

Haurren bidairako
baliatuko dute ▶ 7



Poesiak entzunez banatu dira aurtengo Uxola Sariak

SARIAK ▶ XVIII. edizioko irabazleak eman ziren atzo ezagutzera Laskoraingo ikasleen errezitaldiarekin ▶ 2



Uxola Sariko irabazle guztiak atzo arratsaldean Leidor zineman. IRATXE ETXEBESTE



Lor taldeak jendea bildu zuen, zaparraden gainetik. IGA

Jende asko eta eguraldi txarra Gazte Festetan

IBARRA ▶ Antolatzaileak «pozik» agertu dira; sokatira, kontzertuak, dantza, bertsolariak, mus eta bazkaria arrakastatsuak izan dira ▶ 6

TOLOSA ▶

Tolosa Bizirik-en ekitaldiak

Ilegalizazioa «sutara»
bota nahi dute ▶ 3

ANOETA-IRURA ▶

Ikasleentzat etorkinen kanpaina ▶ 4

Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi
baduzu, egin zaitez harpidedun!

Egun gutxi geratzen dira!

943 30 43 46

astegunetan
(08:30etik 20:30era)
larunbatetan
(09:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko

hitza



LITERATURA ▶

Idazle gazteei agur berezia

XVIII. Uxola Sarien banaketa ekitaldian errezitaldia egin dute Laskorainekoek

IRATXE ETXEBESTE

«Tonto-tonto 18 urte, adinez nagusi egin zaigu literatur lehiaketa eta gaurkoan Estanislao Urruzola Vitoria Uxola zenari buruzko hainbat zertzelada aipatu nahiko genituzke, ez baikenuke nahi lehiaketa adinez nagusi izan eta lehiaketari izena ematen dionaz ezer gutxi jakitea, horrexegatik labur-labur Uxola-z lau hitz egingo ditugu». Gisa horretara hasi zuten atzo Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza zinegotzi Onintza Lasak eta euskara teknikari Iñaki Azaldegik Uxola sarien XVIII. sari banaketa ekitaldia, aurtengoan berrikuntzak izango zirela iragarri.

Eta halaxe izan zen. «Duela 18 urte joan zitzaigun, 1986an, hain zuzen ere. Jaio, berriz, 1909an egin zen Tolosan. 36ko gerraren ondorioak jasan zituen eta horrexegatik Tolosatik kanpo pasatu behar izan zituzten hainbat urte berak eta bere familiak». Euskarazko eskolak eman zituela, kartzelan zela lehen liburua idatzi zuela, ehunka artikuluren sortzaile izan zela... Eta artikulugile izateaz gain, ipuinak, olerkiak, bertsoak, eleberriak ere idatzi zituela ekarri nahi izan zuten antolotzaileek atzokoan gogora. Tolosarra, idazlea, irakaslea, itzultzailea, gudaria, kulturalilea, abertzalea eta euskaltzalea. Horrelakoxea baitzen Uxola.

Eta, nork daki; horrelakoxeak izango dira egunen batean, agian, literatur lanak egin eta atzo sariak jaso zituztenetako batzuk ere. Lasaren aburuz leku bat egin dute, bederen, «xarmadun guneetan». Idazlearen sortze lanak xarma berezia baitu: «Liburuz beteriko lekuetan, hainbat eta hainbat pertsonaren irudimen gaitasunaren aurrean, txunditurik geratu ohi gara eta oharkabean hirugarren pertsonan pentsatzen dugu. A ze istorio berezia otu zaion urliari! Aitzitik, ipuinak, poesiak, kontakizunak, pasadizoak norberaren buruan bueltaka ibili eta ideiak hizkietara pasatzerakoan, norbera ere idazle bilakatu da. Horren adierazle dira liburuxka honetan agertzen diren pertsonak». Lasaren hitzetan, hitz egokiak topatu dituzte denek hainbat ideia berezi, barru-barrukoak, garatzeko.

Maitasunari, maiteari, amodioari idatzitakoak dira asko. Bizitzari izkriatzen diote beste batzuk. Eta, irudimena darabiltenak ere badira tartean. Hala ere, badute guztiek zerbait komunean: sormen lanak egin eta lehiaketara aurkeztu dituztelako saritu dituztela. Lehenengo, bigarrena edota hirugarrena lortu dute atzo Leidoerreko eszenatoki gainera igo ziren haur eta gazte guztiek. Hala hizlauan nola olerkian, lehenengo, bigarren edota hirugarren saria.

Horien aurretik igo zirentzat ez zegoen saririk. Guztietzat ez, bederen. Musikaz, dantzaz eta kantuz lagundutako poesia errezitaldian jardun zutenetarik bakarren batek literatur lehiaketako saria ere lortu zuen, izan ere. Laskorain ikastolako ikasleek bikain egin zuten haiek sortutako poesien irakurketa. Askotariko instrumentuek lagundutako kantu hunkigarriak eta dantza pausorik gozoenak eskaini zituzten beste behin. Gozoak ziren baita ere ekitaldiari hasiera eman zieten haurren eta gazteen ahotsak. Idoia Iraolaren gidaritzapean, euskaraz eta erdaraz aritu zen ikastolako abesbatza. Saririk ez, eta txalo bat eskatu zuen Lasak haiei guztiei eskaintzeko. Saria ikusleena izan zen, benetan.



Sari banaketa aurretik poesia errezitaldia eskaini zuten Laskorain ikastolako ikasleek. IRATXE ETXEBESTE

UXOLA SARIEN IRABAZLEAK ▶

MIREN IRAETA

IKAZTEGIETAKO HERRI ESKOLA



Maila: Hizlaura, 1. maila.
Izenburua. Mapa besoan.
Saria. Lehenena.

UNAI ETXEBERRIA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Olerkia, 1. maila.
Izenburua. Muxua.
Saria. Lehena.

MAIALEN URANGA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Hizlaura, 2. maila.
Izenburua. Helen Winslet.
Saria. Lehena.

IRATI SORONDO

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Olerkia, 2. maila.
Izenburua. Nire maitea.
Saria. Lehena.

NAIARA PERURENA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Hizlaura, 3. maila.
Izenburua. Bizitzaren gazi-gozaok.
Saria. Lehena.

NAIARA ARRESEIGOR

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Olerkia, 3. maila.
Izenburua. Nahi eta ezina.
Saria. Lehena.

MARKOS ETXEZARRETA

HIRUKIDE JESUITINAK



Maila: Hizlaura, 1. maila.
Izenburua. Su txinparta baten istorioa.
Saria. Bigarrena.

JONE AMONARRIZ

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Olerkia, 1. maila.
Izenburua. Maitasun gutuna.
Saria. Bigarrena.

ANE ALONSO

IBARRAKO UZTURPE IKASTOLA



Maila: Hizlaura, 2. maila.
Izenburua. Urrezko malkoak.
Saria. Bigarrena.

BEATRIZ ODRIOSOLA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Olerkia, 2. maila.
Izenburua. Ametsa.
Saria. Bigarrena.

MADDI SARASOLA

ANOETAKO HERRI IKASTOLA



Maila: Hizlaura, 3. maila.
Izenburua. Bizitzaren ziegak.
Saria. Bigarrena.

IÑAKI ETXEBERRIA

HIRUKIDE ESKOLAPIOAK



Maila: Olerkia, 3. maila.
Izenburua. Belardian.
Saria. Bigarrena.

ANTTON TELLERIA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Hizlaura, 1. maila.
Izenburua. Txingurri bat soldaduskan!
Saria. Hirugarrena.

ASIER SARASUA

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila: Olerkia, 1. maila.
Izenburua. Ornitorrincoen olerkiak.
Saria. Hirugarrena.

CLARA URTEAGA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Hizlaura, 2. maila.
Izenburua. Izarrak itzaltzen.
Saria. Hirugarrena.

MIRIAM CALVO

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Olerkia, 2. maila.
Izenburua. Eskizofreniaren beldur.
Saria. Hirugarrena.

IÑAKI ETXEBERRIA

HIRUKIDE ESKOLAPIOAK



Maila: Hizlaura, 3. maila.
Izenburua. Gaur ere hemen nago.
Saria. Hirugarrena.

AIORA MUJICA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila: Olerkia, 3. maila.
Izenburua. Euria.
Saria. Hirugarrena.

GAZTELUKO UDALA

IRAGARKIA

Gazteluko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala Osingoen eta Erretore Etxean: aurrerapenaren jendeaurreko erakusketak.

Gazteluko Alkateak 2.004ko ekainaren 9an emandako Ebazpenaren bidez, Raimundo Mendiburu Abad Arkielekoak erredaktaturiko Gazteluko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren aurrerapena Osingoen eta Erretore Etxean jendeaurrean jartzea onartu zuen eta Hirigintz Planeamenduko Erregelamenduen 116. artikularen bat etortz, interesatuak beren iritzia eman ditzakete ondoren aipatzen den eran:

a). Aurrerapenaren dokumentua aztertzeko lekua: Gazteluko Udala Idazkaritza, bulego orduetan (astelehena, asteazkena eta ostirala 9:00etatik 14:00ak arte) eta Kopi Bat (Lizardi Olerkia, 2 Tolosa).

b). Aztertzeko eta kasua balitz iritziak emateko epea: iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasi eta 30 eguneko epean.

c). Iritziak aurkezteko bulegoa: Udala Erregistro Nagusia.

Gaztelu, 2.004ko ekainak 10
ALKATEA

POLITIKA ▶



Tolosa Bizirik herri ekimeneko kide batzuk atzoko prentsaurrekoan. LEIRE MONTES

TB: «Badugu zer erre, zer aldatu eta aro berriari zer eskatu»

Sanjoanen atarian, adierazpenak egin ditu Tolosa Bizirik herri ekimenak; hainbat ekimen antolatu ditu jaietarako

LEIRE MONTES

«Antzinako legeari jarraituz, euskaldunok aro berriaren, su berriaren jaiotza ospatzen dugu egun hauetan. Ohitura denez, iragan urteko aje eta deabru guztiak sutan erreko ditugu, eta su berriak datorren urterako ditugun esperantza eta onginaliak irudikatuko dituzte».

San Joan jaien atarian, «tolosarrak, herri moduan, zer erre eta zer aldatu» badutela adierazi zuten atzo Tolosa Bizirik (TB) ekimeneko kideek. Haien esanetan, aurtengoa «hainbat herritarren eskubide zibil eta politikoaren ukazioaren urtea» izan da: «Tolosarrak %24aren ahotsa Udaletik kanporatua izan da, eta horrek udal agintariak gure begien aurrean irudikatzen nahi duten normaltasunaren ikuskizuna tamalgarri eta lotsagarri egiten du».

Herritarrek «zer eskatu» ere badutela adierazi zuten, era berean. Zentzu horretan, «guztionak diren erakundeak» berreskuratu nahi dituzte, horrela herriaren ahotsa eta eraba-

EKITALDIAK ▶

BIHAR

19:30. *Euskal presoak etxera!* aldarrikapena, Arrameleko zubian.

22:00. *Ilegalizazioa sutara* aldarrikapena Santa Maria plazan, San Joan suan.

LARUNBATA, HILAREN 26A

11:00-13:30. EHNA egiteko aukera, udaletxe atarian.

kia errespetatua izan dadin: «Demokrazia da, hitz batean, gure herriarentzat aldarrikatzen duguna».

Plataformakideen iritziz, eratzunkizuna guztiena da, baina batik bat talde politikoena. «Udal gobernuaren egonagatik, herritarren ordezkaritza zilegia berrezartzeko nahitaezko diren neurriak hartzeko ahalmena eta betebeharra dute. Orain arte, tamalez, nahiago izan dute Tolosa Bizirik-ek proposatutako konponbideei muzin egin, eta herriari lapurtuta-

ko zinegotzi besaulkiei eutsi».

Bestalde, tolosarrak erakutsitako adeitasuna eskertu zuten: «Udaletxean ez egonagatik ere herriaren ordezkaritzat onartu gaituzuen guztiak, iriztiak iritzi, sutara bota duzue ilegalizazioa».

Jai giroan murgiltzeko deia egin zieten herritarrei: «Sutan erre dezagun Alderdien Legea, gaindi dezagun ilegalizazioa. Erre dezagun, baita ere, euskal presoan sakabanaketa, laster gure artean libre izateko lehen urratsa emanez. Bihoakie gure besarkadarik ukituena Euskal Herriaren alde egiteagatik gulgandik urrun dauden guztiak».

Festan murgiltzeaz gainera, egun hauetarako plataformak antolatutako ekimenetan parte hartzerak ere gonbidatu zituzten herritarrek. Bihar, *Euskal presoak etxera!* aldarrikatuko dute, 19:30ean, Arrameleko zubian; eta 22:00etan, Santa Maria plazan, San Joan suan ere egingo dute aldarrikapena *Ilegalizazioa sutara* lelopean. Larunbatean, EHNA tramitatzeak aukera izango da, 11:00etatik 13:30era, udaletxe atarian.

AURKEZPENA ▶

Juan Garmendia Larrañagaren liburu berria

Juan Garmendia Larrañaga etnografo tolosarrak *Tolosa zahar-berriak* liburu berria aurkeztuko du gaur, Kultur Etxean, 20:00etan. Idazlearekin, Tolosako alkate Jokin Beldarratz eta Koldo Aizpurua Euskadiko Kutxako Gipuzkoako Lurralde zuzendaria izango dira aurkezpenean.

MUSIKA ▶

Musika Eskolako akordeoi eta koro ikasleen saioa

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolako koro eta akordeoi ikasleek ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan, Pablo Gorosabelgo entzategian. Miriam Bereauren eta Koldo Tarragonaren zuzendaritzapean, errepertorio zabala eskainiko dute.

SASKIBALOIA 3X3 ▶



Hainbat parte-hartzaile, larunbatean, San Frantziskon. JAIONE ASTIBIA

Tolosarrak bigarren VI. San Joan Sarian

3x3 kale saskibaloia, VI. San Joan Saria, jokatu zen larunbatean San Frantzisko ibiltokian, Aiz-Orratz elkarteak antolatuta. Hogei-ta bost taldek hartu zuen parte. Euriagatik, eta zorua irristakorra zegoenez, finala jaurtiketa libretara jokatu behar izan zuten. Beasaingo Juanmaline-k irabazi zuen txapelketa; 600 euroko saria jaso zuen taldea. Enievel Tolosako taldea izan zen bigarren: Kalet Bidaurrek, Haritz Aranek, Iker Otañok eta Koldo Sainzek 300 euroko saria jaso zuten. Otaño orkatileko zaintiratua izan zuen. Troinik (Beasain) izan zen hirugarren, eta BasketG.com (Beasain) laugarren. Gaztetxoek eta nesken talderik ere izan zen aurtengoa. Parte-hartzaileen artean, gainera, hainbat opariren zozketa egin zuten. Ikusle askok jarraitu zuen txapelketa.

HIRUGARREN ADINA ▶

Sanferminetara bidaia antolatu du Harizek

Harize jubilatua eta pentsiodunen elkarteak sanferminetara bidaia antolatu du uztailaren 12rako. 09:00etan abiatuko dira, San Frantziskotik. Izen-ematea zabalik da, elkartearen bertan. Bazkideek 27 euro ordaindu behar dituzte, eta besteek 30 —bazkide txartela eguneratua aurkeztu behar da—.

ERAKUSKETA ▶

Txinpartako erakusketaren inaugurazioa

Txinparta elkarteak, urtero sanjoanetan egiten duen bezala, koadro erakusketak antolatu du elkartearen. Bihar inauguratuko da, 18:30ean. 27 koadro izango dira ikusgai, eta ikusleek bozkatzeko aukera izango dute. Hilaren 27a arte egongo da zabalik, eta 29an, 19:30ean, sari banaketa egingo dute.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorian agurrak...

Sagardotegiko menua eta eguneko menua

EGUZKITZA

SAGARDOLEGIA

Usabal Auzoa, Amaro • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 67 26 13

ANOETA-IRURA ▶ GIZARTEA

Nor da Karima?

Kultura aniztasunaren inguruan ekintzak egin dituzte Irura eta Anoetako ikasleek: etorkinen kanpaina



Ikasleak etorkinen programako ekintza bat burutzen. ANOETAKO HERRI IKASTOLA

GARAZI AZKUE

Kanpotik etortzen diren pertsonen egoera ulertzen lagundu, bestelako pertsonak eta kulturak errespetatu eta onartzeko jarrerak sustatu, edota, ezezagunaren gaitzespena sortzen duten auriritziak murriztea dira, besteak beste, Anoetako eta Irurako ikastolek duten helburua egin berri duten proiektuarekin: Etorkinen kanpaina egon dira murgilduta buru-belarri irakasleak eta ikasleak.

Kurtso hasieran, bi talde ezberdin banatu ziren ikastoletan; batetik, balore taldea eratu zen, eta bestetik, euskaraz bizi taldea. Orain, kurtso bukaeran, proiektu hau aurrera eramaten bozatu egin dira bi taldeak eta etorkinen aferra aztertu dute guztiek.

Maiatzan zehar egon dira lanean bailarako bi ikastetxean

proiektu hau aurrera eraman nahian. Ekintza ugari prestatu dituzte ikasleek aipatutako helburu horiek betetzeko asmoz.

Ekintza ugari

Haur Hezkuntzako txikiak zaharagoek prestatutako antzerkiak ikusi dituzte eta marrazkiak egin dituzte horren inguruan. Lehen Hezkuntzako haurrek, *Karimaren gutuna* irakurri eta bestelako ariketak burutu dituzte eta Lehen Hezkuntzako zaharrenek, antzerkiak prestatu eta antzeztu dituzte. Azkenik, DBHko ikasleek etorkinei gertatutako egoerak aztertu dituzte ikastetxean, besteak beste.

Baina ekintza hauetaz gain, girotzeko goizero entzun dute ikasleek beste herrialdeetako musika.

Bestalde, igandean izan zen

ikastoletako kurtso amaierako festa Anoetan, egun honetan ere izan du proiektuak presentzia; ikasle atzeritarren kulturaren inguruko txokoak antolatu baitzituzten. Beste kulturetako ikasleek, bakoitzak bere jatorrizko herrialdeetarik eka-rritako gauzak jarri zituen erakusketa moduan.

Balorazio ona

Antolatzaileen esanetan, «lagungarri izango delakoan aritu gara; dena dela, zaila da materia honetan gizarteak dituen auriritziei aurre egitea».

Proiektu honekin, etorkinen egoera eta bizimodua islatzen saiatu dira, eta, lanak iraun duen epe laburrean haurrek guztiz kontzientziaztea zaila bada ere, ikuspuntu bat jorratzeko baliagarria izan dela aipatu dute ikastetxeetako arduradunek.

GUTUN@K ▶



Sutara!!

San Joan suak herriko plazan biltzen gaitu urtero anoetarrok. Bildu bai, baina baita bereizi ere azken bi urteotan. Su beraren inguruan bilduko baidakara errespetatzen ez gaituztenak eta errespetatuak ez garenak; su beraren inguruan botorik ez eta zinegotzi direnak, eta botoak izan eta zinegotzi ez direnak.

Baina guk, lekuri ez dugunok, errespeturik jaso ez dugunok, udal ordezkariak ez dugunok, ahotsik ez dugu galdu. Eta suak bildu gaituzten

sutara botako ditugu: sutara AHTa eta herria txikituko dituguten proiektuak, sutara ezker abertzalearen ilegalizazioa, sutara lekua eta ahotsa kendu nahi diguna.

Eta suak argi dezala udalaren urte osoan ilunpean geratu dena. Argi dezala Udalaren jarrera baztertzaila, eta agerian utzi euren ez den lekua hartu duenik badela.

Hori esateko bilduko gara anoetarrok San Joan suaren inguruan, bihar 22:45ean; ahotsik ez dugulako galdu.

ANOETAKO FESTA ALTERNATIBOEN
BATZORDEA ▶ ANOETA

VILLABONA ▶ KULTURA

Xabier Mendiguren solasaldian gonbidatua

'Arbelaren gainean' aztertuko dute gaur Beterriko liburua literatur solasaldian

G. AZKUE

Gaur izango da Beterriko Liburua literatur ekimenak antolatutako literatur solasaldia. Villabonako Udaleko bilera gelan bilduko dira, lehen euskaltegia zegoen lekuan.

Oraingo honetan, Xabier Mendiguren idazlearen *Arbelaren gainean* kronika lana aztertuko dute bertaraten direnek. Mendiguren Elizegik, haur eta gazte literatura, narrazioa, nobela edota antzerkia landu ditu bere idazle bizi-tzan zehar.

Solasaldi honetan, gainera, irakurleen kezkei eta galderei erantzuteko eta solasaldian parte hartzeko, Mendiguren Elizegi bera egongo da Villabonan.

19:30ean bilduko dira hizketaldiari ekiteko. Antolatzaileek solasaldia *Arbelaren gainean*, Xabier Mendiguren Elizegiren azken lana irakurri-



Mendiguren Elizegi. HITZA

ta izatea gomendatu dute solasaldia hobeto jarraitu ahal izateko.

Bestalde, Beterriko Liburua literatur ekimenaren bultzatzaileek inguruko irakurle oro gonbidatu dute; gaur 19:30ean euskaltegian, bilera gelan, bilduko dira Beterriko liburua literatur solasaldiko partaideak.

IRIARTE

jatetxea

☎ 943 683 078
BERROBI

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZArekin elkarlanean

Gure harpidedunen artean IRIARTE JATETXEAK oparitutako 2 lagunentzako afaria eder bat zozketatuko dugu.
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

AMEZKETA ▶

Joxean Tolosa txapelketan izena emateko epea zabalik

Txapelketa uztailaren 2an hasi eta, beti bezala, irailaren 19an amaituko da

O.ESKITXABEL

Joxean Tolosa pilotari amezketarra eskuz banaka txapel-dun atera zeneko hamabosgarren urtea betetzen da aurtengo; urtero bezala, momentu hura gogoratzeko pilota txapelketa antolatuta du aurtengo ere Zazpi-Ilturri pilota eskolak.

XXV. edizio horretako partidak «frontoi osoan jokatu» dira eta eskuz banakakoak izango direla azaldu dute txapelketako antolatzaileek.

Irailera bitarte

Joxean Tolosa pilota txapelketa datorren ostiralean, uztailaren 2an, hasiko da eta bi hilabete inguruko iraupena izango du; partida guztiak Amezketa pilotalekuan jokatu dira.

Urtero bezala, finalak irailaren 19an jokatu dira. Ohi bezala, sari banaketan Joxean Tolosa pilotaria ere bertan izango da.

Izena emateko epea zabalik dago; azken eguna datorren asteazkena, ekainaren 30a, izango da.

Hiru maila ariko dira norgehiagokan Joxean Tolosa txapelketan: kadeteak, gazteak eta nagusiak.

Izena emateko baldintzak

Partaidetzari dagokionez, «dibrea izango da, baina talde bakoitzetik mailako pilotari bat» onartuko dela azaldu dute Zazpi-Ilturri ordezkariek.

Hala ere, pilotari bat baino gehiago onartzeko honako irizpideak hartuko dituzte kontutan: iazko partaideak izatea, Euskadiko Txapelketako lehenengo postuetan izatea, herrialde bakoitzeko txapeldunak izatea edo Zazpi-Ilturri elkarteak dituen konpromisoen arabera gonbidatuak izatea.

Izena emateko orriak 943 65 31 92 fax zenbakira edota honako bi helbide elektronikoetara bidali daitezke: xaltonz@hotmail.com eta zazpitiurri@mixmail.com.

HITZA TXAPELKETA ▶



Albizturren jokatu dituzte benjaminek partidak; argazkian, finalurreko partida bat. O.ESKITXABEL

‘Hitza’-ko finaleetara iritsi bitarteko balorazio «ona»

Pilotarien «maila ona» eta txapelketaren «antolakuntza egokia» azpimarratu dituzte, besteak beste, antolatzaileek

OLAIA ESKITXABEL

Bost egun besterik ez dira geratzen HITZA txapelketako finalak jokatzeko; igandean, ekainaren 27an, Tolosako Beotibar pilotalekuan izango dira 10:00-etatik aurrera.

Aurtengo HITZA txapelketa izena hartu duen arren, urte asko daramatza Aurrera-Saiaz taldeak eskualdeko pilota txapelketa antolatzen. Bertan, hama-bi urtetan epaile lanetan aritu da Andres Aramendi; aurtengo Beotibar pilotalekuan etorkizuneko partidetan izan da: «Antolakuntza ona izan du txapelketak eta pilotari dezentek hartu dute parte», azaldu du.

Orain dela bi hilabete, uztailaren 21ean, jokatu ziren txapelketako lehenengo partidak. Benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak eta etorkizunekoak herri desberdinetan aritu dira bitarte horretan norgehiagokan finalerako txartela lortu nahian.

Txapelketan zehar

Adunak, infantilen partidak jokatu dira; hamasei bikotek jokatu dute bertan: eskualdeko pilotariek gain, azpeltiarrek, ur-

nietarrak, andoaindarrak, koitiarrak, aňorgarrak... izan dira.

Infantilen «finalera iritsi diren pilotariak iritsi behar zirenak dira» Adunako partiden jarraipena egin duen Iñaki Otazegi ordezkararen, arabera. Horretaz gain, pozik agertu da «igandeko finalean Iraola eta Iraola adunarrak egongo direlako».

Gorka Arandiak Albizturren txikienean —benjaminak— jokatu dituzten partiden jarraipena egin du: «Txapelketaren hasieran denetariako emaitzak ikusten ziren baina finalerdiak eta finalerdiak oso parekatuak izan dira», dio Arandiak.

Eskualdeko pilotariak «punta puntan ibili dira» bere ustez; Zelaia bidegoindarra eta Labaka albizurtarra finalera iritsi dira; eta finalerdienetan, Salbarredi, Matxinea, Altuna eta Ander eskualdeko pilota-

ANDRES ARAMENDI
TOLOSA

«Antolakuntza ona izan du HITZA txapelketak eta pilotari dezentek hartu dute parte bertan»

GORKA ARANDIA
ALBIZTUR

«Hasieran denetariako emaitzak ikusten ziren baina finalerdienak eta finalerdiak oso parekatuak izan dira»

riak ere «bikain» aritu zirela azpimarratu du.

«Partida guztiak jokatu dira eta, zentzu horretan, pilotarien erantzuna oso ona izan da», gehitu du.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga, J., Martin Jose

Iraola, 10. 67 24 38

Gimeno, A., Elbarren, 52

(Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko-

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Klase partikularrek emateko

edo umeak zaintzeko. Neska

bat eskaintzen da udan klase

partikularrek emateko (DBH

mailara arte) edo umeak

zaintzeko. 665 746279.

elketa
jaletrea
Tel. 943 65 39 92

Ekainak 23an zabalduko da

Mahaia
erreserbatzeko
deitu:
943 65 39 92
607 991 224

IBARRA ▶ JAIK

Habeas Corpus. Ospe eta kritika sozial handiko taldea taularatu zen ostiral gauean San Bartolomeko plazan. Euri zaparradaren bat edo beste egin arren, jende ugari jarraitu zuen kontzertua. IGA



Mus txapelketa. Hogei bat bikotek parte hartu zuten larunbat arratsaldean Sendi Ekintzan. IGA



Pailazoak. Zizurkilgo Txuku, Pinto eta Ttntto pailazoan emanaldiko une bat. IGA



Sokatira apustua. Saio polita eta parekatua eskaini zuten herriko neskek. Argazkian, talde irabazleko kideak, tiraldi batean. IGA



Stupenda Jones. Olaztiko taldeak kontzertua eskaini zuen igande gauean Gaztetxean. Argazkian, emanaldiko une bat. IGA

Jende dezente bildu da Gazte Festetan

Larunbatean bildu zen lagun kopuru gehien eguraldiak asko lagundu ez arren; oro har, «pozik» dira antolatzaileak

DANI GIBELALDE

Joan den asteburuan ospatutako Gazte Festak nola ateratu diren ikusita, eta ekitaldietan izandako partaidetza kontuan hartuta, «pozik» dira Ibarako Gazte Asanbladako antolatzaileak.

Ostiralean, giro ederrean, herriko nesken arteko sokatira apustua jokatu zen lehen aldiz. Zortzi laguneko hiru talde aritu

ziren aurrez aurre, eta saio parekatua eskaini zuten. Azkenean, talde laranja gailendu zen. Honako lagunek osatu zuten talde irabazlea: Saioa Mendia, Maitane Beristain, Naroa Malkorra, Aloña Peñagarikano, Oihana Ortiz de Zarate, Olaia Nieto, Eider Epelde eta Maritxu Garcia. Talde horian, Itxaro Aierza, Itziar Saizar, Aitziber Zabala, Laida Etxedona, Maider Lopetegui, Itziar Lasa, Naia-

ra Lopetegui eta Oihana Lopetegui aritu ziren; talde berdean, Izaro Calvano, Alazne Beristain, Igone Eraso, Amaia Igarua, Barbara Alaba, Edurne Aranburu, Ainara Otaegi eta Maier Lopetegui.

Habeas Corpus eta Lor taldeek eman zuten kontzertuan euri zaparradaren bat edo beste izan zen, baina halere, jendeak ez zion muzin egin kontzertua ikusteari.

Larunbat arratsaldean, mus txapelketa izan zen Sendi Ekintzan, eta hogei bat bikotek parte hartu zuten. Urtetik urtera oihartzun handiagoa hartzen ari da txapelketa hori. Sendi Ekintzaren tortilada eta txokolatadaren ondotik, Zizurkilgo Denbora taldeko Txuku, Pinto, eta Ttntto pailazoek ikuskizun polita eskaini zuten eta haurrek gustura jarraitu zuten emanaldia.

Era berean, arratsaldean, Alurr-eko dantzarien saioa nabarmentzeko izan zen; jende asko hurbildu zen plazara haur, gazte eta helduen dantza desberdinak ikustera. Urtean zehar egindako lan bikaina agertu zuten dantzariak plazan egindako saioan.

Gauean, Jexux Mari Irazu, Anjel Mari Peñagarikano, Miren Artetxe eta Jokin Uranga bertsolariek saio atseginga-

ria eta umoretsua eskaini zuten Belabieta kiroledegian. Ondoren, Nekin taldearekin dantzaldia izan zen. Atarrabiako Gas taldea Gaztetxea eta txosna ingurua animatzen aritu zen.

Halaber, larunbatean, ezezagun batzuek zabor kontainer bati su eman zioten, festetarako egokituta zegoen komun bat ibaira bota zuten eta ezkaratzen batean txikizioak eragin zituzten. Ibarako Gazte Asanbladako antolatzaileek horrelako ekintzek festari «kolorea kentzen» diotela, eta Gazte Festetan ez dutela «tokirik» aipatu zuten.

Igandean gazte bazkaria egin zuten. Hasiera batean plazan egiteko izan zen bazkaria, baina euria ari zuela eta Gaztetxean egin zuten. Amaitzeko, gauean kontzertuak izan ziren Gaztetxean bertan.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

LEITZA ▶ GIZARTEA

Saharar herriarekin elkartasunezko festa burutu zen ostiralean

Zonaldera etorriko diren 12 ume sahararren bidairako baliatuko dute ekimenarekin jaso zen laguntza



Hakima eta Senia kantari aritu zirenekoa. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Ostiral gauaz, Leitzako zine-man burutu zen saharar herriarekiko elkartasunezko ikuskizuna «ikusgarria» izan zen, bertara bildu zen jende askoren iritziz.

Eszenatokian, nahiz handik sartu-ateran, berrogei bat lagun aritu ziren lanean, bakoitzak bere papera ederki asko eginez, izan ere ikuskizuna antzerki modura aurkeztu baitzuten, nonbait benetako emandalaren entsegua izan balitz bezala. Beraz 40 aktorez osatutako errepertorioa zuen ostiralekoak, guztiak Leitzako, nahiz Aresokoak, eta urtean zehar beste hainbeste arlotan aritzen den jendea: kantari, dantzari, musikari, irrintzilari, bertsolari, txalapartari... Hau guztia aurriera zihoan heinean irudiak

ere eskaini zituzten: saharar errefuxiatuen kanpamendutakoak eta hor bizi diren ume gehienek ezagutu ere egiten ez dituzten beren herriko, Saharako irudiak.

Ekitaldia Saharako eta Euskal Herriko ikurrei egindako Aurrekuaz hasi bazen, bukaera ez zuen makalagoa izan,



Jaialdian parte hartu zuten kideak elkarrekin. J. ASTIBIA

duela bost urtez geroztik Leitzan bizi diren Hakima Nafee eta Senia Ajmed eszenatokira igo eta hasanieraz *Ama ez nigarririk egin* kantarearen ondoren *Sahara-Euskal Herria* abestu zuten euskaraz, ikuskizun haren zergatia ederki asko azalduz: bi herrien arteko elkartasuna.

Eta horixe izan zen bada, emanaldi haren xedea. Aurten eskualdera etorriko diren 12 haur sahararren bidaia ordaintzeko laguntza eskuratzeko. Eta antolatzaileen esanetan, «alde horretatik balorazio baikorra egiten dugu oso eta bertara bildu zen jendeari eskerrak eman beharrean gaude», zioten antolatzaileek. Bestalde ordea «egun jendea hain solidarioa izanik ustez, elkartasun adierazpena egin daitekeen, hainbeste jende ez agertzeak, kontraesanak» sortzen omen dizkie.

LEITZA ▶ KIROLA

Igerilekua ahal bezain laister irekiko da

Leitzako igerilekuak atzo irekitzekoak baziren ere, moldaketa lanak oraindik osotara bukatzekoak zeudela eta, atzeratu egin da. Dena den, gaur-biharretan zabalduko direla eman da jakitera. Bestalde igerilekuaren gestioa Hydrak eramanen du, kiroldegia eta pilotalekua darmaizan enpresak berak, eta tabernaren kudeaketa berri, Miren Fagoagari egokitu zitzaion, lehengo ostiralez, ekainak 18, egin zen zozketan. Horretarako beste hiru eskaintza-eskakizun ere izan ziren.



Lanen irudi bat. J. ASTIBIA

GARAPENA ▶

Garapen agente deialdia zabalik dago

Cederna-Garalur zonaldeko garapen agentziak, agente berri bat izendatzeko deialdia irekita du ekainak 7az geroztik, jakinarazi dutenez. Garapen agenteak, Areso eta Leitzan ez ezik, Araitz, Larraun, Lekunberri eta Ultzamako udalerrietan ere ari beharko omen luke lanean, aipatu zonaldeko negozioak aztertu, jarduera ekonomikoak dinamizatu, sustatzaileei aholkuak eman eta proiektuak diseinatu. Lan kontratu finkoa izanzen duela adierazi da eta Lekunberriko Udaltzainguan langile. Lanpostu horren lehiaketan oposaketan parte hartu nahi duen orok, uztailaren 7a baino lehen eman behar omen du izena, udal horietako erregistroren baten.

LEITZA ▶ KIROLA

Gimnastika erritmiko ikastaroa

Uztailaren 1etik hasi eta 31era arte gimnastika erritmikoko ikastaroa emanen dute kiroldegian. Eskolak astearte eta ostegunetan izanen dira, goizez, 10:30etik 12:30era. Ikastaro horretan parte hartu nahi duten umeek, kiroldegian bertan eman behar omen dute izena, aste guzti honetan zehar. Ikastaroa egingen duten ikasleek 30na euro ordaindu beharko omen dute. Hau antolatu ahal izateko gutxienez 15 haurrek eman behar dute izena.



Aurreko emanaldi bat. J. ASTIBIA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47. beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ennio@ennio.com
www.ennio.com

Tolosa. Erremerentari kalean, guztiz beritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.

Tolosa. Agintari kalean, bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Sartzeak moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.

Tolosa. Erremerentari kalean, bi logelako apartamentua salgai. Oso egoera onean dago. 153.258 euro.

Tolosa. Alde Zaharra. Hormigoizko eraikuntza berria, igogailuarekin, 3 logelako pisua salgai.

Tolosa. Bifamiliar batean etxebizitza salgai, 900 m²-ko lursaila, terraza eta

baxerarekin. Aukera paregabea. 234.395 euro.

Tolosa. Larramendi, Pisu ederra garajearekin salgai.

Tolosa. Gernikako lorategian, 108 m². Pisu ederra salgai. Aukera handiak.

Tolosa. Lurramendi auzoan, Sam-eko bi etxe abi salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak! 438.739 eurotik aurrera.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean. Beritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

Ibarra. Euskal Herria kalean hainbat

etxebizitza salgai 185.713 eurotatik aurrera.

Ibarra. 86 m². Pisu ederra eta altua salgai igogailuarekin hornituta.

222.374 euro.

Irura. Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajearekin. Terraza ederra.

Irura. Bi logelako pisu polita.

Gazteentzat aproposa. 158.066 euro.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Kale Berria. 80 m²-ko etxebizitza garbaitzarekin.

Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trasteleku eta garajearekin.

Beasain. Logela bateko etxebizitza. 99.167 euro.

Andoain-Urnieta. Hainbat etxebizitza berri eta 2. eskukoak.

Baserriak. Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...

Pabilioiak. Aukera handia; salmantan eta alokairuan.

Borda. Salgai Urnietan.

Alkizan. Eraikuntza berriko azkeneko etxe bifamiliarra salgai.

Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Bidania. Aurrera-Saizar taldeko eskolar mailako pilotarien merienda izango da, bihar 19:00etan Saizar elkartean.

Tolosa. Juan Garmendia Larrañagaren *Tolosa berri zaharrak* liburuaren aurkezpena Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Jubilatuen Egoitzako langileek kontzentrazioa egingo dute Triangulon bihar 19:00etan.

Villabona. Beterriko Liburua literatura solasaldia. Xabier Mendiguren Elizegiren *Arbelaren gainean* aztertuko dute 19:30ean euskaltegian.

HITZALDIAK

Villabona. Erraustegiaren inguruko hitzaldia, Erraustegien kontrako plataformako kidea Pello Lozanoren eskutik, 19:30ean Gaztetxean.

JAIK

Sanjoan. Abaltzisketan, Anoetan, Belauntzan eta Tolosan Sanjoanak hasiko dira bihar.

ZINEMA

Tolosa. *Troya* filma ikus ahal izango da Leidor zinemaren. 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Naiara Zaldúa Mozo (Zuzurkil). Gaur 5 urte. Muu handi bat zure familia guztia-
ren paretik eta bereziki Uier eta Ugaitz



URTE ASKOAN

Zorionak Izaskun (Azpeitia). Bihotz-bihotzez zure mutil lagun Mikelen partetik.



URTE ASKOAN

Zorionak Maddi eta Aneren partetik.



URTE ASKOAN

Aitor Agirre (Alegia). Gaur 5 urte. Zorionak aitona, amona, Maite eta Joxiren partetik.

'Berria'-k urtebete

ANDOAIN ▶ Euskarazko egunkari batek inoiz izan dituen salmenta eta irakurle emaitza onenak ditu 'Berria'-k urtebete ondoren



Irakurle ugari ditu Berriak. G.AZKUE

AGURRAK ▶



Ramon Sagastibeltza Vivanco

Iraganeko denborak ez dira oharkabeen joaten, zure irria, Ramon, ez da itzaliko inoiz.

*Bihar, 19:00etan agurra
lkaztegiatoko kiroldegian.*

Galarza familia

ERREDAKZIOA

A tzo urtebete plazaratu zen lehendabiziko aldiz *Berria*. Euskarazko egunkari batek inoiz izan dituen salmenta eta irakurle emaitza onenak ditu *Berriak*, *Egunkaria* itxi eta *Egunerok* lehen hilabeteetan izandako salmentak alde batera utzita.

21.000 ale inguru saltzen ditu egunero, eta 66.500 irakurle inguru ditu. 21.000 aleetatik 11.300 harpidetzen bitartez saltzen dira. «Gaur egun gehiago dira euskarazko eguneroko bat erosten dutenak, orain dela bi edo lau urte baino. Hazkunde nabarmena dago. Euskal prentsak pauso bat aurrera eman du».

Egunkariak oso emaitza onak lortu dituela nabarmendu dute Joxean Lizarribar EKT-ko Administrazio Kontseiluko lehendakariak, Joan Mari Larraite idazkariak eta Martxelo Otamendi *Berriako* zuzendariak atzo goizean Martin Ugaldede Kultur Parkean eman zuten prentsaurrekoan.

Lizarribarrek nabarmendu zuenez, 24.404 akziodunen babesari esker atera da aurrera proiektu hau. Otamendik agertu duenez, egunkari horren erronka, euskarazko eguneroko prentsara hurbildu ziren irakurleei eustea da. Horretarako, kalitatezko produktua bat eskaintzea ezinbestekoa dela adierazi zuen, eta, alde horretatik, *Berriak* lehen urtean erroka hori gainditu duela iritziz dio Otamendik.

Etorikizunari begira ere, kalitate horri eustea dela apostua nabarmendu zuen *Berriako* zuzendariak.

Gazte gehigarria

Bestalde, *Berriaren* hedadura areagotzeko, irakurle gazteengana iristeak berebiziko garrantzia duela agertu du Otamendik, eta etorkizun hurbilean, erronka nagusia gazteentzako propio asmatutako gehigarri bat kaleratzea dela aurreratu zuen. Udazkenean plazaratuko du *Berriak* gazteentzako gehigarri hori.

DENDA HAUEN
Tolosaldeko HITZAren
LAGUNTZAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Arri Oinetakoak
- Desgaste Oinetakoak
- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri
- Bereziak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitgia
- Lizarribar Oinetakoak
- Imen Bitxitgia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitgia
- Ezenarro Lehoak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREN
%5*-eko
BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.
(Martxoetik ekainera)
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!
 *Promozio hau ez zaie beste beherapenei gehituko.
 Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.